

BARKAZIOA.



«Jesus autem dicebat: Pater, dimitte illis:
non enim sciunt quid faciunt.»

(S. Luc. XXIII, 34).

Zoaz, ¡ó nere anima! zoaz Golgota mendiaren gañera, eta begira zazu, begirik badezu ikusteko.

¿Zér agertzen da zure aurrean?

Or, Gurutze batetik zintzilik, Jaungoikoaren Semea, gure peka-tuakgatik eziñ esan ala zauriz gorputza estalita.

Or dago, bi lapurren erdian, Zeruak eta lurra ezerezetik atera zituen: or, gizon eskergabeak josirik, gizonak salbatzera Zerutik lurrera etorri dana: or, odola dariola, burua arantzaz zulatua, biotza dolorez erdiratua, Jesus, ¡gure Jesus! gizonaren amorioz gizonaren ichura artu duena: gizonaren amorioz Zeruko ateak idikitzeagatik, iñork eziñ esan litzakean bezelako naigabéak bere gaiñ artu dituen. Or dago, eta bere oñean judu biotz-gogorrak, iñeka eta farra egiten dutela.

¡A zér miraria! Gurutzean Jaungoikoa, maiterasunagatik iltzez jotsia. Azpian, gizon eskergabea, bere Jaunaren miñak eta naigabeak getu nayan.

Jasotzen ditu Jaunak Zeruronz bere jaungoikozko begiak, eta bere Aita Betikoari itzegiten dio onela: «Aita, barka zayezu, zergatik ez dakite zér egiten duten.»

.

¡O itz mirarizkoak! ¿Ez dezute zuek bigunduko nere biotz gogorra? ¿Ez dezute zuek bigunduko, gorrotoz beterik dagoen anima? ¿Nórk ez du barkatuko, Zuk barkatzen badezu, ¡Jesus maitea!? Gurutzean josten zaituzte, eta barkatzen dezu: arantzaz burua zulatzen di-

zute, ta barkatzen dezu: ukatzen zaituzte, ta barkatzen dezu: esker-gabetasun izugarriarekin eranzuten diote zure neurrigabeko maitetasunari, eta barkatzen dezu, ala ere: dena barkatzen dezu. ¿Eta zér da guk barkatu bear ez deguna, o nere Jauna? Denok anayak gera: denok salbatzeko isuri-zenduan Zure Odol jaungoikozkoa: denontzat barkazioa eskatu zenduen: denok, bada, elkarri barkatu bear diogu. ¡Barkazioa! ¡Maitetasuna! Itz santu oek biak dira, Gurutze Santutik aterarik, mundu guztia ontasunez betetzen dutenak. ¡Barkazioa eta maitetasuna izan bitez bada, beti ta beti, gure biotzaren jabe!

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

ON ANTONIO TRUEBA-KOARI.

AMALAUDUNA.

Aberea, plantaya, aitz gogorra,
 Gizona, ¡ay! dena, mundu onetan
 Guztia alduanan gochedetan
 Dena izan beardu ill-korra.
 Goiz argiak ere ikusi nola
 Lege onen beran zoriondetan
 Arratseko ostarkian besoetan
 Illaz, aitortutzendu bere zorra;
 Baña, Trueba-ren oroipen eztiya
 Euskal-erritarren biotzean
 Segurki iraungo da biziya
 Aitzgorriko aitza zut dan artean
 Bai, bere izena egokidaró
 Minzayatuko da beti, betiró.

FRANCISCO APAOLAZA.
